PRENTSA-OHARRA

2025ko azaroa

BAZTAN: TXIRRINDULARITZA MITO BATEN BERPIZTEA BAIONA ETA IRUÑA ARTEAN

Baztango bideak Baiona eta Iruñea lotzen ditu mendi-lepo, haran eta paisaia mitikoen artean; euskaldunen lokarri, erromesak ere eraman ditu mendeetan zehar Konpostelaraino. Ibilbide hau, euskal mitologiako Basajaun ospetsuaren lurraldea dena, txirrindularitzaren epopeia handien eszenatoki ere izan da 1988 eta 2016 artean. Orain, 2026an, BAZTAN izeneko martxa zikloturista berri batekin biziberritu da.

EKIMENAREN ANTOLAKUNTZAN: AVIRON BAYONNAIS

Luchon-Baiona edo Urte Amaierako Lasterketa bezalako ekitaldi enblematikoen arrakastan oinarrituta, eta Laurent Irazusta presidentearen bultzadapean, Aviron Bayonnaisek Baiona eta Iruñea arteko mugaz gaindiko lasterketa mitiko baten itzulera sustatu du. Helburua argia da: epe luzera, nazioarteko erreferentziazko martxa zikloturista izatea.
Antolakuntza talde motibatu baten esperientziaz gozatzen du, eta, hurrenez-hurren, Jean-Michel Condé eta Jean-Bernard Etchegoyenek zuzentzen dituzten txirrindularitza eta martxa zikloturista sailetako adituen ekarpena ere jasotzen du.

FORMATU BEREZIKO MARTXA ZIKLOTURISTA

Lagunarteko giroa eta errendimendua, biak eskaintzen ditu kronometratua den BAZTAN izeneko martxa zikloturista berri honek: parte-hartzaileek ordubeteko epea dute nahi dutenean abiatzeko, sailkapen orokorra lepo nagusietako denboretan oinarritzen da, jaitsierak ez dira kontuan hartzen erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, eta kirol-erronkari uko egin gabe, parte-hartzaileek ekimena nahi duten modura goza dezakete, taldean edo lagunartean.

COMMUNIQUÉ DE PRESSE

Lehen edizio honetarako bi ibilbide proposatu dira non bai semiprofesionalek eta bai amateur beteranoek haien tokia aurkituko duten:

- **BAZTAN REAL** : 185km eta 3250 D+, Izpegi, Artesiaga, Sorogain eta Erro mendateak.
- **BAZTAN ONA :** 131km et 1900 D+, Sorogain eta Erro mendateak.

KIROLAZ HARATAGO: LAGUNARTEKO TOPAKETA ENGAIATUA

Irteera-marka txandakatua izango da Baiona eta Iruñea artean edizio bakoitzerako, historiak elkartutako bi hiriburu hauen arteko lotura indartuz.
Hasiera-markaz arduratzen den hirian mugikortasun aktiboaren inguruko BAZTAN MOVE EXPO azoka ere antolatuko da, tailer didaktikoekin eta giro atseginean. Gainera, BAZTAN ekimen honek bere lurraldea zaintzeko konpromisoa berresten du: ekitaldiak ez du hondakinik utziko, eta tokiko produktuekin prestatuko dira ekitaldia bera eta eskainitako bazkariak ere.

IZEN-EMATEA ETA EGITARAUA

- **Izen-ematea** : 2025eko abenduaren 10ean irekiko dira izen-emateak baztan.fr webgunean.
- **Prezioa** : 70€ lehen 400 parte-hartzaileentzat, 80€ hurrengo 600 izen-emateentzat eta 95€ gainontzekoentzat. Elastiko ofiziala era amaietako bazkaria eskainiak izango dira. Bueltako autobusak egongo dira aukeran.
- **2026ko irailaren 12an, larunbata** : partaideen gunearen irekiera, dortsalen banaketa, animazioak eta EXPOa.
- **2026ko irailaren 13a, igandea** : Baionarako irteerak, mailakatuak, iritsiera Iruñara jai giroan.

MEDIA :
Site internet - Instagram - Facebook - Strava

PRENTSARENTZAKO KONTAKTUAK :
Gérard IRIBARREN - secretaire.general@avironbayonnais.net - 06.45.77.22.75
Frédéric CASTETS - Aviron Bayonnais - presse@baztan.fr - 06.03.09.46.65

©mak2com ©Martin Rivet
Photos disponibles sur demande